

Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren adierazleak

Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren GJH adierazleak eguneratu dira

2023ko abenduaren 21a

Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren Adierazleak estatistikaren helburua da Nazio Batuen munduko adierazleen esparruarekin lerrotatutako adierazle multzo bat gizarte-eragileen eskura jartzea, Nafarroan garapen jasangarrirako helburuen eta helmugen betetze-maila etengabe monitorizatu ahal izateko.


Nastatek eutsi egiten dio Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako 17 Helburuek eta 169 helmugek Nafarroan duten betetze-maila kuantifikatzea ahalbidetzen duen adierazle sorta etengabe zabaltzeko konpromisoari.

Nafarroako Foru Komunitatean Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda zabaltzeko Nastaten plataforman, 270 adierazle estatistiko daude guztira. Adierazle gehienak autonomia-erkidegoen arteko metodologia harmonizatu bati jarraikiz zehaztu dira, eta, beraz, haien konparagarritasuna bermatuta dago.

Nastatek lanean jarraitzen du orain arte kontuan hartu gabeko helmugen berri emango duten adierazle berriak sartzeko. Ondorengo histograman, Garapen Jasangarrirako 17 Helburuetako bakoitzari buruzko informazioa ematen duten adierazleen kopurua irudikatzen da.

1. GRAFIKOA

GJH helburu bakoitzeko adierazle kopurua



INFORMAZIO GEHIAGO

Nastat

[2030 Agendaren adierazleak.](#)



CONTACTO | HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00